

# Ikustekoa, sinesteko



BEIA SALABERRI  
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

**E**txe-aldiak eta komertzioen hes-teak, dirudienez, prentsa saltegien poza egin duke. Izan ere, azken biz-pahiru asteetan prentsa dendako apa-lategia xuhur kausitzen dut, ausa eta jakitate goseak, kontsumoaren paliati-bo moduan, agortu izan balitu bezala. Hainbestearino non behakoa lerratu eta eskua luzatu baitzaizkidan *Le Chasseur Français* hostokatzeke.

Egia aitortzeko, hilabetekari hau zabal-tzea ez diot arrunt serendipiari zor, ezaguna zait *Le Chasseur Français*, ze-ren eta ehiztari familia batetik bainator, hainbestearino non haur eta gazte den-bora guztian gutxitan baizik ez baitugu aprobetxatu ahal izan igandeetako fami-lia bazkaria, denak oilaskoaren itzulian bildurik, nor izterra nor hegala tira, desorduetan baitziren heltzen aitaxi, aita, anaia, kideekin tripatzeak bukatu eta aperitifa gozatu ondoan. Bego horre-tan detaile hori.

Horra begien parera heldu zitzaidala Pirinioetako bortuetako biztanle-ehizta-ri-laborari baten elkarrizketa kitzikaga-rria, oihartzun egin zidana luzaz.

Zioena laburtuko dut. "Ehiztariok abere taldeek eskertzen gaituzte. Abere talde guztiek, izan ardi, izan basurde ala

ahuntz, harrapariarekin kontatzen dute kide eri, ahul, zahar, hots epe ertainean ez bizigarrien baztertzeke. Eta kontua ez da predatzaileak identifikatzen di-tuela mantsoago laster egiten dutelako, urrats tipitan edo hatsanka, baizik eta taldeak ematen dituela" –elkarrizketan sentitzen da, dudarik gabe, isiltasun une bat markatu zuela, efektuaren hanpatze-ko–."Hasieran taldeak harrapariari buru egiten dio, batera, normala den bezala, gero ihes egiten du, hau ere oldar seinale bat da. Baina ororen buru, une batean, taldea immobilizatzen da eta tanpez no-rabidez aldatzen du, ahulak ehiztariaren meneko utziz lekuan berean". –isilune bat markatu zukeen berriz ere segitu aitzin–. "Okerrera da, abere eriek beren burua sakrifikatzen dutela" –isilunea–. "Badakite! Abandonatzen dute berehala! Batzuetan etzanez edo tirorako agerian geldituz. Ikusi beharrekoa da, sinesteko". Aho biko labanaren sarraskia.

Egia da azkarra, zalua edo ozen min-tzo dena gutxitan dela mehatxatua, nehork ez du horretarako ausardiarik. Selektzio naturalaren araua da nolazpait. Halabeharraren gordina. Lanjerosa da, entzutera ematen baitu patua saihes-tezina dela, galtzailea izatea tokatzen

denean, ez dela erremediorik, jokoak eginak direla. Esquindarren parasito so-zialaren izaera azpimarratzera dator. Eta bide beretik dio taldeak ez zaitzakeela salba, borondaterik hoberenarekin ere, momentu batean elkartasuna ezina edo debaldekoa dela loteria handiaren argi-tan. Artaldearen kontzeptua inutila dela, kideak oro, goiz ala berant, ustel ziki-nak direlako. Aldi berean, proposamen lanjerosa da, hortik gutxi falta baikenu-ke ondokoen erratera heltzeko biktimei edo baztertuei begira: zure falta da eraso bazaituzte, aski zenuen ez han ibiltzea, zure falta da kalte egin badizute, zure jarrera ez zelako egokia, zure destinoa halakoa zelako, zure bizia porrota bada, kausitzerik ez baduzu, zure buruari bai-zik ez diozu zor, ahula izanagatik, ez aski abila, ez aski langilea, ezin zenuen ongi atera bizian.

Hots, denek gehiago eta gehiagotan irakurri beharko genuke *Le Chasseur Français*, gure buruaz ikasteko ez bada, izan dadila gogoetatzeko doia, neurtze-ko ea edozein artalde edo basurde tropa baino gehiago balio ote dugun, erabaki-tzeko predatzailearen irakurketa bidez-koa eta egokia zaigunez. "Ikusi behar da, sinesteko". ●